

GIPUZKOAKO
GORROTO-
GERTAKARIEI
BURUZKO
TXOSTENA
2016-2019

A word cloud graphic tilted at an angle, containing various terms related to hate crime and social justice. The most prominent words are 'Hate crime', 'Violence', 'Hate speech', 'Incident', 'Bias', 'Racism', 'Disability', 'Offender', 'Victimization', 'Reporting', 'Minorities', 'LGBTI Law', 'Hate speech', 'Identity', 'Human rights', 'Police', 'Hurt', and 'Disrupting'.

GIPUZKOAKO GORROTO-GERTAKARIEI BURUZKO TXOSTENA

***Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
(UPV/EHU)***

Zuzendaritza eta Koordinazioa

Jon-Mirena LANDA GOROSTIZA Irak. Dk. (Zuz.)

Enara GARRO CARRERA Irak. Dk. (Koord.)

Lantaldea:

Mikel ANDEREZ BELATEGI

Bertha GAZTELUMENDI CABALLERO

Iñigo GORDON BENITO

Uxue MARTÍN SILVA

Lore MENDIZABAL ZUBIAURRE

**Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa**



**ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro**

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea


Hezkuntza,
Zientzia eta Kulturarako
Nazio Batuen Erakundea
Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura

Giza Eskubideen
eta Botere Publikoen UPV/EHUko
UNESCO Katedra - Cátedra UNESCO
de Derechos Humanos y Poderes
Públicos de la UPV/EHU

EDUKIEN TAULA

SARRERA	3
1. GORROTO-GERTAKARIAK GIPUZKOAN	5
1.1 GORROTO DELITUEN BANAKETA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA	6
1.2. GORROTO DELITUEN SAILKAPENA DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA	12
1.3. GORROTO DELITUEN BANAKETA ESPAZIALA	14
1.3.1. Gorroto delituen banaketa udalerriaren arabera	14
1.3.2. Gorroto delituen banaketa komisio-lekuaren arabera.....	18
1.4. GORROTO DELITUEN DENBORA-BANAKETA	21
1.4.1. Gorroto delituen banaketa hilabetearen arabera	21
1.4.2. Gorroto delituen banaketa asteko egunaren arabera.....	26
1.4.3. Gorroto delituen banaketa orduaren arabera	29
1.5. EGOZPENEN BANAKETA	33
1.6. ATXILOKETEN BANAKETA	39
1.7. BIKTIMIZAZIOAREN BANAKETA	40
1.8. ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOEN BANAKETA	46
1.9. ONDORIOAK	49
1.9.1. Gorroto gertakarien guztizko kopurua	49
1.9.2. Gertakarien jomugan dauden kolektiboen mapa	49
1.9.3. Delitu-tipologiak	50
1.9.4. Gorroto delituen denbora- eta espazio-banaketa, ikertuak, atxilotuak eta biktimak .	51
1.9.5. Gipuzkoako gorroto mapa Euskadi mailako testuinguruan.....	52

SARRERA

Hemen aurkezten dugun txosten hau Gipuzkoan gorroto-gertakariei buruz egiten den mota honetako lehena da. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren baterako ekimen baten emaitza da. Ekimenaren iturburuan uste irmo bat dago: hain zuzen ere, beharrezkoa genuela honelako tresna bat, gure lurralde historikoari errealitate hori hobeto ezagutzea ahalbidetuko dion informazio garrantzitsua ematea eta, hortik abiatuta, eraginkortasun handiagoz planifikatzeko gaitz sozial horretan esku hartzeko eta hari aurrea hartzeko politikak.

Hau «gorroto-gertakariei» buruzko txosten bat da, ez soilik «delituei» buruzkoa. Izan ere, ez dagokio poliziaren instantziari ondoren, epai irmo bidez, delitutzat hartuko diren jokabideen behin betiko iragaztea burutzea. Aitzitik, intolerantziako jokabideen berri jaso eta horiek hautematea du zeregin, baita, hala badagokio horiek beste instantzia batzuetara bideratzea ere. Beraz, delitu-txosten bat baino gehiago da gorroto-gertakariei buruzko txosten bat, eta haren xedea eta funtzioa kriminalitate mota horri buruzko epai irmoei dagokienez delitu-mapa ofiziala zein den jasotzea baino haratago doaz.

Kontuan izan behar da, informaziorik ezean, errealitate horiek ezkutuan jarraituko luketela. Edozein Zuzenbideko estatu demokratiko eta sozialak, legegintzako ekintza eta haren aplikazio eraginkor eta proportzioskoa uztartzeaz gain, aldian behin enpirikoki ebaluatu behar du abian jarritako neurriak zenbateraino diren eraginkorrak. Hortaz, txosten hau gaitz sozial honen errealitateari hurbiltzeko tresna bezala aurkezten da ebaluazio kritikoa errazteko; eta, aldi berean, iritzi publikoa ahalduntzeko, eta tresna hobeak sortzeko azken helburuarekin, bai komunitatean esku hartzeko bai erakundeekin jarduteko.

Hala ere, ezin da ahaztu datu polizialek islatzen duten errealitatea oso mugatua dela; izan ere biktinek askotan ez dute jasandako biktimizazioa salatu ere egiten, arrazoi desberdinengatik (errepresalien beldurragatik, polizia-estamentuarekiko mesfidantzagatik, ezer egiterik izango ez den usteagatik, etab.). Ondorioz, zifra beltza agertzen da, hau da, biktimak salaketarik jarri ez duenez, poliziak gorroto-delitu asko ez ezagutzea eta, beraz, txosten honetan ez jasotzea. Bai Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrak, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak, errealitate horren berri dute, eta, horregatik, elkarrizketa-prozesu bat

ireki dute hainbat elkarte eta GKEekin, azken batean, gorroto-delituen biktima izan daitezkeen pertsonen eta lehen aipatutako arrazoiengatik poliziarengana iristen ez diren delitu izan daitezkeen gertakarien berri baitute.


Adierazi behar da txosten honetarako lagungarriak izan dela mintegi bat, EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrak antolatutakoa. Asmoa mintegi hori Donostian bertan egitea bazen ere, SARs-Cov 2 pandemiak eragindako egoerak mintegia online formatura egokitu beharra ekarri zuen. Modu honetan, webinar hori 2020ko irailaren 24an ospatu zen, "Gipuzkoako Gorroto Gertakarien inguruko Txostena eta Jardunaldia 2016-2019" izenburupean. Hainbat GKEko eta kirol-klubetako ordezkariak bertaratu ziren, txosten honen zirriborro oso aurreratu bati buruzko azterketa bat egiteko asmoz.

Doakiela gure esker ona, bai haiei, bai gure mintegietako entzule eta hizlariari, egin zizkiguten ekarpen baliotsuengatik eta, edonola ere, txosten honetan akatsik, hutsik edo mugarik badago, ezin zaie inola ere haiei egotzi; izan ere, sinatzen dugunon erantzukizun dira soilik eta osorik.


1. GORROTO-GERTAKARIAK GIPUZKOAN

2016 eta 2019 artean 106 gorroto-gertakari¹ erregistratu dira Gipuzkoan; zeinetatik 100 delituak diren (%94,34) eta 6 arau-hauste administratiboak (%5,66). Datu horiek urteka banakatzen badira, ikus daiteke 2016an 15 gorroto-delitu eta arau-hauste administratibo bat erregistratu zirela, 2017an 29 gorroto-delitu eta 2 arau-hauste administratibo erregistratu zirela, 2018an 33 gorroto-delitu eta ezein arau-hauste administratibo erregistratu zirela, eta 2019an 23 gorroto-delitu eta 3 arau-hauste administratibo egin zirela. Ondorengo grafikoek azken 4 urteetako gorroto-gertakarien eta gorroto delituen bilakaera erakusten dute, hurrenez hurren.

GORROTO GERTAKARIEN BILAKAERA (2016-2019)



GORROTO DELITU ETA ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOEN BILAKAERA (2016- 2019)



¹ Txosten honetan, gorroto gertakariak hartzen dira kontuan, hots, bai delitu izan daitezkeen jokabideak, bai arau-hauste administratiboak, baldin eta babestutako kolektiboren baten aurka burutzen diren. LANDA GOROSTIZA, J.M., “El mapa de odio en el País Vasco. A la vez una reflexión sobre delitos de odio y violencia política en Euskadi, Catalunya e Irlanda del Norte”, *InDret: Revista para el Análisis del Derecho*, Núm. 4, 2018, 4. orr.

Egia bada ere gorroto gertakarien erregistroan gorabeherak² daudela, delitu horiek zifra beltz³ handia jasaten dutenez, ezin da jakin biktimizazioaren benetako irismena zein den, ezta 2019an burututako gorroto-delituen kopurua benetan jaitsi den ere⁴. Izan ere, ikerketa batzuek, Europako Giza Eskubideen Agentziaren (FRA ingelesezko sigletan) datuetan oinarrituta, zifra beltza %80 inguruan kokatzen dute, nahiz eta erreferentziazko kolektiboen artean aldeak egon⁵.

1.1 GORROTO DELITUEN BANAKETA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA

Ikus daitekeenez, izaera arrazista edo xenofoboa duten delituak argi eta garbi nagusitzen dira, 2016-2019 urteetan erregistratutako gorroto-delitu gehienak biltzen dituztelarik ($n=61$; %61). Horien atzetik datoz sexu-orientazio eta identitatearen aurkako delituak ($n=15$; %15), sinesmen eta praktika erlijiosoen aurkako delituak ($n=9$; %9) eta ideologia eta orientazio politikoaren aurkako delituak ($n=8$; %8). Bestalde, dibertsitate funtzionalean ($n=3$; %3), sexuan ($n=2$; %2) eta aporofobian ($n=1$; %1) oinarritutako

² Txosten honetan ikus daitekeenez, gorabeherak izan dira gorroto gertakari zein delituen erregistroan. Horiek zuhurtziaz aztertu behar dira, erregistratutako kasuen kopurua txikia delako, bai eta polizia-estatistiken balioa mugatua ere. Izan ere, gorroto gertakariak biltzeari dagokionez, badirudi gaiak duen prekarietatearen ondorioz zifra beltz handia dagoela, jarraian aipatuko den bezala. Hori dela eta, gerta liteke gertakarien bilketan dauden gorabeherak datuak biltzeko sistemetan gertaturiko hobekuntzen, babestutako kolektiboek Segurtasun Indar eta Kidegoekiko konfiantza (edo mesfidantza) areagotzearen edo talde horien salaketak jasotzen dituzten Segurtasun Indar eta Kidegoetako agenteen prestakuntza hobetzearen ondorio izatea, besteak beste, eta ez nahitaez delitu-fenomeno hori benetan areagotu delako. LANDA GOROSTIZA, J.M., “El mapa de odio, ... op. cit., 17. orr. Polizia-estatistiken balio mugatuari buruz sakontzeko, kriminalitatearen benetako irismena ezagutzeko iturri bakarra den aldetik, ikusi GARCÍA ESPAÑA, E./DÍEZ RIPOLLÉS, J.M./PÉREZ JIMÉNEZ, F./BENITEZ JIMÉNEZ, M.J./CEREZO DOMÍNGUEZ, A.I./ (2010), “Evolución de la delincuencia en España: Análisis longitudinal con encuestas de victimización”, *Revista Española de Investigación Criminológica*, Art. 2, Núm. 8, *passim*.


³ Gorroto-delituen zifra beltza salatzen ez diren, eta ondorioz, Segurtasun Indar eta Kidegoek ezagutzen ez dituzten delituek osatzen dute. VOZMEDIANO SANZ, L./SAN JUAN GUILLÉN, C., *Criminología ambiental: ecología del delito y de la seguridad*. Editorial UOC: Barcelona, 2010, *passim*.

⁴ MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., *Policing hate crime. understanding communities and prejudice*, Routledge, Oxon, 2017, 127. orr.

⁵ Zifra beltz handi hori hainbat arrazoiengatik izan daiteke: biktimen salatzeak mesfidantza eta beldurra, edota delituak jasotzeaz eta sailkatzeaz arduratzen diren organo publikoek gorroto-delituetan prestakuntzarik ez izatea. Aurrekoari poliziaren aurrean salatzen ez diren gorabeherak gehitu behar zaizkio, baina bai beste instantzia batzuei, hala nola fiskaltzari edo guardiako epaitegiei. Horregatik, garrantzitsua da zifra beltza pixkanaka argitzea ahalbidetzen duten beste tresna batzuk ere kontuan hartzea, hala nola biktimizazio-inkestak edo GKEk egindako txostenak, hainbat iturritako datuak ematen dituztenak eta poliziaren estatistikien osagarri direnak. ACHUTEGUI OTALAURRUCHI, P., “Victimización de los delitos de odio. Aproximación a sus consecuencias y a las respuestas institucional y social”, *Revista de Victimología/Journal of Victimology*, Núm. 5, 2017, 36 eta ss. orr. Ikus ere bai, LANDA GOROSTIZA, J.M., “El mapa de odio, ... op. cit., 6 eta ss. orr.

gorroto-delituek ozta-ozta osatzen dute erregistratutako delituen %6a. Sexu-kolektiboari dagokionez, zehaztu behar da 2019an dela aldagai hori modu autonomoan jasotzen den lehena; ondorioz, mota horretako gorroto-delituen kopurua zuhurtziaz hartu behar da kontuan.


GORROTO DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019, N = 100)



Datu horiek urteka banakatzen baditugu, ondoriozta dezakegu arrazakeria - xenofobia kategoria dela nagusi urtetik urtera, nahiz eta kopuru nahiko desberdinekin (2017an eta 2018an ia delitu kopurua bikoiztu egin zen beste bi urteekin konparatuz). 2016. urteari dagokionez, aipatzeko modukoa da arraza-etnialan eta sexu-orientazio eta identitatean oinarritutako delituak baino ez direla erregistratu, bai eta hurrengo urteetara arte beste mota bateko gorroto-delituak erregistratu ez izana. Nabarmentzekoa da, halaber, 2019ra arte babestutako kolektibo guztien aurkako delituak erregistratu ez izana⁶.

⁶ Gogora dezagun, *supra* azaldu den bezala, sexu-kolektiboa ez zela erregistratzen hasi 2019ra arte, eta horregatik ezin izan dela haren bilakaera islatu.

GORROTO DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ETA URTEAREN ARABERA (N = 100)




Aipatutako babestutako kolektiboen aurkako gorroto-delituak erregistratzeaz gain, Ertzaintzaren datuek horietako batzuk kategoriatan edo markatzaile desberdinetan banakatzeko aukera ematen dute, bereziki arrazismoa-xenofobia, sexu-orientazio eta identitatea, sinesmen eta praktika erlijiosoak eta dibertsitate funtzionala.


Arrazakeria eta xenofobia delituei dagokienez, pertsona beltzen aurkako delituak ($n=15$; %24,6) eta pertsona arabiarren aurkakoak ($n=13$; %21,3) nabarmentzen dira. Hala ere, kolektibo horien bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusten da nagusitasun hori ez dela konstantea izan urteetan zehar. Halaber, zifrek erakusten dute kolektibo gehienek gorabehera handiak izan dituztela urteetan zehar⁷, eta kolektibo batzuk ez direla urte batean edo gehiagotan erregistratu ere egin. Bestalde, deigarria da gorroto-delitu arrazista edo xenofoboena ia herenean ez egotea datu nahikorik helburu diren kolektiboa identifikatzeko ($n=20$; %32,78).

⁷ Gorabehera horiek, lehen aipatu bezala, zuhurtziaz hartu behar dira kontuan, erregistratutako gorroto-delituen kopuru eskasaren ondorioz.

ARRAZISMO - XENOFOBIA DELITUAK KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019, N = 61)




ARRAZISMO - XENOFOBIA DELITUEN BILAKAERA (2016-2019, N=61)




Sexu-orientazioaren eta identitatearen aurkako delituei dagokienez, gay kolektiboa ($n=5$; %31,25) eta kolektibo transexuala ($n=6$; %37,5) dira eraso gehien salatzen dituztenak. Bestalde, sexu-kolektiboan sailka daitezkeen hiru kasu identifikatu dira (%18,75), baina, 2019a baino lehen gertatu zirenez, sexu-orientazioaren eta identitatearen aurkako delitutzat jo ziren. Azkenik, emakume lesbiana baten aurkako delitu bat aurkitu zuten, eta baita delitu bat zeinaren azpikategoria erregistratu ez den.

SEXU-ORIENTAZIO ETA IDENTITATE DELITUAK KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019; N=15)




Sexu-orientazio eta identitatearen aurkako gorroto-delituen bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke, arrazakeriarekin eta xenofobiarekin gertatzen den bezala, kolektiboek aldaketa handiak izan dituztela urteetan zehar; izan ere, kolektiboetako bakar bat ere ez da erregistratu ikertutako lau urteetan zehar (hots, urte batean, bitan edo hirutan erregistratu dira baina ez lau urteetan zehar). Hori transgenero kolektiboaren kasuan gertatzen da; izan ere, kolektibo horren prebalentziak 2018an gorakada bat izan du, 2016an kasu bat gehiago erregistratu duelarik.

SEXU-ORIENTAZIO ETA IDENTITATE DELITUAK KOLEKTIBO ETA URTEAREN ARABERA (2016-2019; N =15)




Sinesmen eta praktika erlijiosoen aurkako delituei dagokienez, delitu islamofobikoak nabarmentzen dira ($n=5$; %62,5). Honetaz gain, kristauen aurkako 2 delitu (%25) eta helburu den sinesmena identifikatu ez den (%12,5) beste delitu bat erregistratu dira.

SINESMEN ETA PRAKTIKA ERLIJSOEN AURKAKO DELITUAK KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019, N=8)



Aurreko kolektiboekin bezala, datu horiek urteka banakatzen badira, ikus daiteke 2016an ez zela talde horren aurkako deliturik erregistratu; 2019an, berriz, gorroto-delitu islamofobikoak baino ez dira erregistratu.

SINESMEN ETA PRAKTIKA ERLIJSOEN AURKAKO DELITUAK URTEAREN ARABERA (2016-2019, N=8)




Azkenik, dibertsitate funtzionalean oinarritutako 3 gorroto delituei dagokienez, lehen ikusi dugunez, 2019an erregistratu ziren guztiak. Horien artean, Ertzaintzak dibertsitate funtzional mentalaren aurkako delitu bat erregistratu zuen, dibertsitate funtzional psikikoaren aurkako beste bat eta identifikatu gabeko beste bat (%33).

1.2. GORROTO DELITUEN SAILKAPENA DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA

Delitu-tipologiei dagokienez, hurrengo grafikoak erakusten du mehatxuak (24 kasu), lesioak (23 kasu), gorroto-diskurtsoa (14 kasu)⁸ eta tratu apalesgarria (10 kasu) direla nagusi. Hala ere, lesioak bezalako delitu larriagoen prebalentzia zuhurtziaz hartu behar da kontuan⁹; izan ere, ikerketa batzuen arabera, hain larriak ez diren gorroto delituen biktima askok uste dute poliziak ezingo duela askorik egin horrelako delituetan, eta, ondorioz, ez dituzte salatzen.

- **Mehatxuak:** 169., 170. eta 171. artikulua ZK.
- **Kalumniak:** 206. artikulua ZK.
- **Derrigortzeak:** 172. artikulua ZK.
- **Kalteak:** 263. artikulua ZK.
- **Kontzientzia askatasunaren aurkako delitua:** 522. artikulua ZK.
- **Ondare historikoaren aurkako delitua:** 321. artikulua ZK.
- **Desordena publikoa:** 557 artikulua ZK.
- **Gorroto-diskurtsoa:** 510. artikulua ZK.
- **Estortsioa:** 243. artikulua ZK.
- **Irainak:** 208 eta 209. artikulua ZK.
- **Lesioak:** 147 eta 148. artikulua ZK.
- **Agintaritzaren aurkako jarkitzea edo atentatua:** 550. artikulua ZK.
- **Tratu-apalesgarria:** 173. artikulua ZK.


DELITU-TIPOLOGIAK (2016-2019; N=100)



⁸ Gorroto-diskurtsotzat jotzen diren kasuak erreserbekin hartu behar dira kontuan, izan ohi duten ibilbide judizial motza dela eta.

⁹ MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., *Policing hate crime*, ... op. cit., 89. orr.


Hurrengo grafikoak delitu-tipologiek 2016tik gaur egun arte izan duten bilakaera erakusten du¹⁰. Bertan ikus daitekeenez, delitu-tipologia jakin batzuek egonkortasunerako joera dute (gorroto-diskurtsoa edo derrigortzeak, adibidez), beste delitu-tipologia batzuek gorabehera handiak izan dituzten bitartean. Hori da lesioen eta mehatxuen kasua, 2018an nabarmen handitu ondoren, 2019an beherakada handia izan baitute. Hala ere, gorabehera horien garrantzia erreserbekin hartu behar da kontuan, erregistratutako gorroto-delituen kopuru eskasaren ondorioz.



Jarraian, delitu-tipologia nagusiak, hau da, kalteak, derrigortzeak, mehatxuak, tratu apalesgarria, gorroto-diskurtsoa, eta lesioak, babestutako kolektiboekin konbinatu dira, kolektibo jakin batzuek delitu-mota jakin batzuk jasateko joera handiagoa duten ala ez jakiteko. Datuek erakusten dute arraza-kolektiboa dela mota horretako delituak gehien pairatzen dituen, baina oso proportzio desberdinetan delitu-tipologiaren arabera. Izan ere, kolektibo hori Gipuzkoan erregistratutako lesioen, gorrotoaren diskurtsoaren eta hertsapenen %64 baino gehiagoren eta mehatxuen %79 baino gehiagoren biktima da. Gainerako kasuetan, ordea, biktimizazioa modu homogeneoagoan banatzen da beste kolektiboekin.

¹⁰ Grafikoan, urteetan zehar jarraitutasuna izan duten delitu-tipologiak bakarrik islatu dira, hau da, aztertutako urte guztietan agertu diren tipologiak, alde batera utzita urte bat edo bi bakarrik agertzen ez zirenak.

DELITU-TIPOLOGIA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019)




1.3. GORROTO DELITUEN BANAKETA ESPAZIALA

1.3.1. Gorroto delituen banaketa udalerriaren arabera

Jarraian, delituen banaketa aurkezten da udalerri-mailan. Honetan, ikus daiteke lau udalerrik Gipuzkoan burututako gorroto-delituen %71 biltzen dutela. Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da lurralde historikoaren hiriburuak, Donostiak, 2016 eta 2019 artean burututako gorroto-delituen herena baino gehiago biltzea ($n=36$). Honetaz gain, hurrengo udalerriak ere nabarmentzen dira: Irun ($n=17$), Eibar ($n=11$) eta Errenteria ($n=7$). Udalerri

horien prebalentzia ez da arraroa; izan ere, INEren datuen arabera¹¹, Donostia, Irun, Errenteria eta Eibar dira lurralde historikoko lau udalerrri populatuena, hurrenez hurren, biztanleriaren %43,23 biltzen dutelarik. Kontuan izan behar da, ikerketa batzuen arabera, gorroto-delituak bolumen, dentsitate edo pertsona-mugimendu handia edo trafiko handia dagoen lekuetan burutzen direla¹². Aitzitik, harrigarria da Arrasateko eta Hondarribiko udalerriek gorroto-deliturik erregistratu ez izana lau urtetan. Antzeko zerbait esan daiteke Lasarte-Oria, Pasaia, Tolosa, Zarautz eta Azpeitiko udalerriei buruz; izan ere, udalerrri horiek ez dute kasu bat edo bi baino gehiago erregistratu, nahiz eta 15.000 biztanle baino gehiago izan.

GORROTO DELITUAK UDALERRI MAILAN (2016-2019; N=100)




¹¹ Informazio gehiago behar izanez gero, ikus Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) web orria, Gipuzkoako biztanleriaren zifra ofizialak jasotzen dituen kontsultarako: <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?T=2873>.

¹² IGANSKI, *Hate crime and the city*, Policy Press, Bristol, 2008, *passim*.


Delituen banaketa udalerrri eta urtearen arabera analizatuz gero, ikus daiteke soilik udalerrri populatuenean erregistratu dituztela gorroto-delituak ikertutako 4 urteetan zehar, hau da, Donostia-San Sebastián, Irun, Eibar eta Errenteria, zeinak, aldi berean, gorroto-delitu gehien erregistratu dituzten udalerrriak diren. Izan ere, udalerrri gehienek aztertutako urteetako batean soilik erregistratu dituzte gorroto-delituak.

GORROTO DELITUAK UDALERRI ETA URTEAREN ARABERA (N = 100)



Hurrengo grafikoaren arabera, Gipuzkoako udalerrietan gehien biktimizatutako kolektiboa arraza-etnikoa da; izan ere, edo kolektibo horren aurkako kasuak baino ez baitira erregistratu, edo beste kolektibo batzuen aurkako kasuak ere jaso dira, baina arrazismo-xenofobiaren prebalentziarekin. Honen salbuespena Lasarte-Oria, Legazpi eta Pasaia dira, non ez diren kolektibo horien aurkako delituak erregistratu. Bitxia da ere hiru udalerrri horietan erregistratu izana dibertsitate funtzionalagatiko gorroto delituen hiru kasuak.


GORROTO DELITUAK UDALERRI ETA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016- 2019; N = 100)



1.3.2. Gorroto delituen banaketa komisio-lekuaren arabera

Jarraian, gorroto-delituen banaketa ere aztertzen da, delitua burutu den lekuaren arabera; hala ere, kasu honetan, delitua gertatu den leku-motari erreparatzen zaio¹³. Ikus daitekeenez, hiri bide publikoek komisio-lekuen herena baino gehiago osatzen dute, zehazki,%38. Etxebizitzak¹⁴, aldiz, komisio-lekuen %26 dira, eta ostalaritzako eta aisialdiko lokalak hirugarren postuan daude, delituen %12 biltzen baitituzte. Azalpen posible bat biktimen ohiko jardueretan aurki daiteke: biktimek beren eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituzten tokiek, hala nola etxeko inguruek edo normalean erabiltzen dituzten merkataritza- edo elikadura-establezimenduek, aukera handiagoa dute gorroto delituen komisio-leku izateko¹⁵.

GORROTO DELITUAK KOMISIO-LEKUAREN ARABERA (2016-2019; N = 100)




¹³ Ez da harrizkeko modukoa Internet bidez egindako deliturik erregistratu ez izana. Kontuan hartu behar da delitua burutzeko unean erasotzailea non zegoen identifikatzeko zailtasunen ondorioz delitu horiek haien probintzia identifikatu ezin izan den delitutzat sailkatu ohi direla. Ondorioz, Gipuzkoako delituetan arreta jartzean, litekeena da horrela sailkatutako delitu guztiak gure azterketatik kanpo geratu izana. Euskadin Internet bidez egindako delituei buruz gehiago jakiteko, ikus 2016, 2017, 2018 eta 2019ko Euskadiko Gorroto Gertakarien Txostenak, honako esteka honetan kontsulta daitezkeenak: <http://katedraddhh.eus/es/informes/informes.php>

¹⁴ "Etxebizitza" terminoa zentzu zabalean ulertu behar da, etxebizitza bera, eraikinaren ataria edo postontzia hartzen baititu.

¹⁵ MCNEELEY, S./OVERSTREET, S. M., "Lifestyle-routine activities, neighborhood context, and ethnic hate crime victimization", *Violence and Victims*, Vol. 33, 2018, 932-948. orr.

Datuak komisio-urtearen arabera banakatzen baditugu, ikus daiteke komisio-leku ohikoenetan bakarrik egin zirela delituak aztertutako urte bakoitzean, hau da, saltoki-guneetan, ostalaritza eta aisialdiko lokaletan, etxebizitzetan eta hiri bide publikoetan.


GORROTO DELITUAK KOMISIO-LEKUAREN ETA URTEAREN ARABERA (2016-2019, N = 100)



Komisio-leku ohikoenei buruzko datuak soilik kontuan hartuz gero, hau da, hiri bide publikoari eta etxebizitzari buruzkoak, ondorioztatu daiteke bi leku horietan gorroto-


delitu ohikoenak arrazistak eta xenofoboak direla (%63,16 hiri bide publikoaren kasuan eta %84,62 etxebizitzan kasuan).

DELITUAK HIRI BIDE PUBLIKOAN ETA ETXEBIZITZAN BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019; N = 64)



Orobat, inguru horietan delitu-tipologiarik ohikoenak mehatxuak (%42,31), kalteak (%23,1) eta derrigortzeak (%15,38) dira etxebizitzan kasuan, eta mehatxuak (%26,32), lesioak (%26,32) eta gorroto-diskurtsoa (%18,42) hiri bide publikoaren kasuan. Datu horiek, gainera, beste herrialde batzuetan aurkitutako eredu bat nabarmentzen dute: pertsonen aurkako delituak ohikoagoak dira espazio publikoan; etxebizitzak, berriz, pertsonen aurkako delituen eta jabetzaren aurkako delituen lekuko diren bitartean¹⁶.

DELITUAK HIRI BIDE PUBLIKOAN ETA ETXEBIZITZAN DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2016-2019; N = 64)



¹⁶ MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., *Policing hate crime...* op. cit., 117. orr.


1.4. GORROTO DELITUEN DENBORA-BANAKETA

Segidan, gorroto delituen hileko, asteko eta orduko banaketa aurkezten da.

1.4.1. Gorroto delituen banaketa hilabetearen arabera


Lehenik eta behin, esan daiteke gorroto delitu gehien erregistratu diren hilabeteak martxoa (% 16), abuztua (% 12), urtarrila (% 11) izan direla.

GORROTO DELITUAK HILABETEAREN ARABERA (2016-2019; N = 100)




Hurrengo grafikoan gorroto delituen hileko banaketaren bilakaera erakusten da, 2016tik 2019ra. Bertan ikus daiteke hilabeteen erdiek soilik erregistratu dituztela delituak aztertutako 4 urteetan. Bestalde, zenbait gorroto delituen hileko banaketak egonkortasunerako joera duen bitartean (apirilean, ekainean edo azaroan, adibidez), banaketa horrek gorabeherak izan ditu zenbait hilabeteetan, hala nola urtarrilean, martxoan edo abenduan.

GORROTO DELITUAK HILABETE ETA URTEAREN ARABERA (N = 100)



Ondoren, gorroto delituen banaketa aztertzen da biktimizatutako babestutako kolektiboaren arabera, urteko zenbait hilabetetan kolektiboak are zaurgarriagoak diren ala ez jakiteko. Datuek erakusten dutenez, arraza- eta etnia-kolektiboak dira urteko hilabete guztietan delituak jasan dituzten bakarrak. Haatik, garrantzitsua da azpimarratzea kolektibo horrek urteko lehen bi lauhilekoetan biltzen dituela biktimizazio gehienak. Bestalde, deigarria da urteko azken lauhilekoan sinesmenetan edo praktika erlijiosoetan oinarritutako gorroto-deliturik erregistratu ez izana.

GORROTO DELITUAK HILABETE ETA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (N = 100)




Azkenik, hileroko delitu-tipologia nagusiei dagokienez¹⁷, deigarria da delitu-tipologia jakin batzuekin lotutako delitu gehienak, batez ere pertsonen aurkako delituen kasuan, uda eta udaberri arteko hilabeteetan erregistratu izana (martxotik irailera), hala nola mehatxuak (%70,83), lesioak (%69,57) eta tratu apalesgarriak (%90). Horren arrazoia izan daiteke hilabete horietan jendeak denbora gehiago ematen duela etxetik

¹⁷ Kasu honetan ere, 6 delitu-tipologia nagusienak bakarrik hartu dira kontuan.


kanpo, eta horrek areagotu egiten duela biktimak eta erasotzaile potentzialak aurkitzeko aukera. Bestalde, derrigortze guztiak urtarriletik uztaileira bitartean gertatu dira, eta kalte gehienak, aldiz, urteko lehen hiru hilabeteetan eta azken bi hilabeteetan (%88,89), hau da, udazken eta negu artean. Gorroto-diskurtsoari dagokionez, udaberri eta udako eta udazken eta neguko hilabeteetan berdin banatzen bada ere (%50, hurrenez hurren), homogeneoagoa da haren banaketa udaberri eta udako hilabeteetan.

GORROTO DELITUAK HILABETE ETA DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2016- 2019; N = 89)



Segidan, beste urrats bat ematen da gorroto delituen espazio eta denbora banaketa aztertzeari dagokionez. Horretarako, ikertutako urteetan gorroto delitu gehien erregistratu dituzten lau udalerriak aukeratu dira, eta aurrez aztertutako denbora-parametroekin konbinatu dira, gorroto-delituak erregistratzeko joera handiena duten hilabeteak, asteko egunak eta ordu-tarteak dauden jakiteko. Lehenik eta behin, ez dago gorroto-deliturik hilero erregistratzen duen udalerririk. Adibidez, Errenteriak urtearen lehen erdian erregistratzen ditu delitu gehienak, %71. Antzeko zerbait esan daiteke Iruni buruz, erregistratutako delituen %70a biltzen baititu otsailetik ekainera. Eibarri dagokionez, Errenteriarekin gertatzen den bezala, arreta ematen du urtearen erdian ia deliturik erregistratu ez izana. Donostiari dagokionez, aldiz, hiri honek delituen %72a erregistratu du urteko lehen hiru hilabeteetan eta azken bietan. Halaber, deigarria da udalerrri honetan irailean eta urrian gorroto-deliturik erregistratu ez izana.


GORROTO DELITUAK HILABETE ETA UDALERRIAREN ARABERA (2016-2019, N = 71)



1.4.2. Gorroto delituen banaketa asteko egunaren arabera


Asteko banaketari buruzko datuen arabera, gorroto delitu gehien burutzen diren egunak igandea (% 19), osteguna (% 17) eta asteazkena (% 16) dira.

GORROTO DELITUAK ASTEKO EGUNAREN ARABERA (2016-2019; N = 100)




Hurrengo grafikoak gorroto delituen banaketaren bilakaera erakusten du asteko egunaren arabera, 2016tik 2019ra. Bertan ikus daitekeenez, banaketak gorabehera nabarmenak izan ditu asteko egun guztietan; hala ere, gorabehera horiek, arestian adierazi den bezala, erreserbekin hartu behar dira kontuan, erregistratutako gorroto delituen kopurua txikia delako.

GORROTO DELITUAK ASTEKO EGUNA ETA URTEAREN ARABERA (N =100)




Babestutako taldeen asteko banaketari dagokionez, esan daiteke arraza- eta etnia- taldea bakarrik banatzen dela modu erlatiboki homogeneoan asteko 7 egunetan zehar. Halaber, nabarmentzeko modukoa da ideologia eta orientazio politikoan oinarritutako delitu guztiak ostegun edo ostiral batean burutu izana, baita aniztasun funtzionalean oinarritutako delitu guztiak asteburuan gertatu izana ere.

GORROTO DELITUAK ASTEKO EGUNA ETA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019; N = 100)



Aitzitik, nagusi diren delitu-tipologiei erreparatzen badiegu, ikus daiteke delitu-tipologia gehienak lanegunen eta asteburuen¹⁸ artean (adibidez, tratu apalesgarria, kalteak, gorroto-diskurtsoa eta lesioak) modu nahiko homogeneoan banatzen diren arren, beste tipologia batzuk lanegunetan burutzen direla nagusiki (mehatxuak eta hertsapenak, adibidez).

GORROTO DELITUAK ASTEKO EGUNA ETA DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2016-2019; N = 89)




¹⁸ Ikerketa honen ondorioetarako, ostirala asteburuan subsumitzea erabaki da.

1.4.3. Gorroto delituen banaketa orduaren arabera.


Ordu-banaketari dagokionez, gorroto delitu gehienak arratsalde-gauean gertatzen dira (%70). Emaitza horren azalpena arestian aipatutakoa izan liteke; izan ere, arratsalde eta gauean izaten da pertsona gehien kalean, lanetik itzuliz edo aisialdiko jarduerak eginez (adibidez, tabernak eta merkataritza-guneak bisitatzeko, kirol-jarduerak egiten, etab.), biktimen eta erasotzaile potentzialen arteko topaketa eta balizko gatazka erraztu dezakeena.

GORROTO DELITUAK ORDUAREN ARABERA (2016-2019; N = 100)




Orobat, datu horiek urteka banakatzen badira, arratsalde-gaueko ordu-tarteak nagusitzen dira. Izan ere, urte batzuetan ez da deliturik izan 12: 00etatik 6: 00etara, edo 6: 00etatik 12: 00etara, 2017. eta 2016. urteetan, hurrenez hurren.

GORROTO DELITUAK ORDU ETA URTEAREN ARABERA (N = 100)




Hala ere, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, ordu-tarte jakin batzuen prebalentziak lotura estua du asteko egunarekin. Modu honetan, arratsaldeko 12:00etatik gaueko 12:00etara bitarteko ordu-tarteak astelehenetik larunbatera bitartean nagusitzen diren bitartean, igandean gaueko 12:00etatik arratsaldeko 12:00etara bitarteko delituen kopuruak nabarmen egiten du gora; ez hori bakarrik, asteko egun horretan erregistratutako delituen %57,9a gaueko 12:00etatik goizeko 06:00etara gertatzen dira eta goizeko 6:00etatik arratsaldeko 12:00etara burutzen diren gorroto delituen %40a egun horretan gertatzen dira.

GORROTO DELITUAK ORDUA ETA ASTEKO EGUNAREN ARABERA (2016- 2019; N = 100)




Bestalde, gorroto-delitu arrazista eta xenofobo gehienak arratsaldeko 12:00etatik gaueko 12:00etara burutzen dira (%75,41). Haatik, babestutako beste kolektibo batzuen aurkako delituak modu homogeneoagoan banatzen dira hiru ordu-tarte edo gehiagoren artean, hala nola sinesmen eta praktika erlijiosoetan oinarritutako delituak, ideologia eta orientazio politikoan oinarritutakoak eta biktimaren sexu-orientazio eta identitatean oinarritutakoak. Era berean, harrigarria da gaueko 12:00etatik goizeko 06:00etara burututako delitu guztiak arrazistak edo xenofoboak edo biktimaren sexu-orientazioan eta identitatean oinarritutakoak izatea.

GORROTO DELITUAK ORDU ETA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019; N = 100)




Ordu-tarte bakoitzean ohikoenak diren delitu-tipologiei dagokienez, lesioek, mehatxuek eta tratu apalesgarriek gertakari gehienak arratsaldeko 12etatik gaueko 12etara erregistratzen dituzte. Gorroto-diskurtsoaren gertakari gehienak, aldiz, lehen hiru ordu-tarteetan kontzentratzen dira; derrigortzeen %55,56, berriz, arratsaldeko 12etatik arratsaldeko 18etara bitarteko tartean gertatzen diren bitartean.

GORROTO DELITUAK ORDU ETA DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2016-2019; N = 89)



1.5. EGOZPENEN BANAKETA¹⁹

2016 eta 2019 artean 90 pertsona ikertu ziren Gipuzkoan²⁰. Ikus daitekeenez, azken bi urteetan ikertutako pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora, 2016. urtearekin alderatuta bikoiztu delarik²¹, nahiz eta gorroto delituen kopurua nabarmen jaitsi den 2019an.



Ikertutako ia pertsona guztiak espainiarrak dira (% 70): 90etik 63; horietatik 54 (% 85,71) Euskadikoak dira, zehazki, Gipuzkoakoak. Honen harira, nabarmendu behar da Espainiatik etorritako ikertutako pertsonen kopuruak gorakada handia izan duela, 2016an ikerketen %60 izatetik 2019an% 80,65 izatera igaro baita²². Ikertutako gainerako

¹⁹ Egotziak -edo ikertuak 13/2005 LOK LeCrim erreformatu ondoren-, delitu baten burutzea egotzi zaien pertsonak dira, eta zeinen kontra Ertzaintzak polizia-eginbideak hasi dituen.


²⁰ Atal honetan, Ertzaintzak Gipuzkoan erregistratutako gorroto delituengatik ikertutako pertsonak aztertzen dira, jatorria edozein dela ere. Hortaz, ikerketa honen ondorioetarako ez dira kontuan hartuko gorroto delitu bat egin duten eta lurralde historiko horretan jatorria duten pertsonak, lurralde historiko horretan gorroto delitirik burutu ez badute.

²¹ Aurkeztutako zifrak Ertzaintzak identifikatu zituen eta hainbat arrazoirengatik zuhurtziaz kontuan hartu behar diren egotziei dagozkie. Lehenik eta behin, erasotzailea ezin izan da beti identifikatu; izan ere, 2016an, erasotzailea ezin izan zen identifikatu erregistratutako 15 gorroto-delituetatik 8tan, 2017an ere ez zen identifikatu erasotzailea 11 delitutan, 2018an ez zen identifikatu erasotzailea 16 gorroto delitutan, eta 2019an ez zen identifikatu erasotzailea 2 gorroto delitutan. Ondorioz, delitu horiek burutu zituzten pertsonak ez ziren sailkatu ez ikertu ez atxilotu gisa. Era berean, kasu askotan delitu bakoitzagatik egotzitako/atxilotutako pertsona bat baino gehiago egon dira. Adibidez, 2017an delitu batek 2 ikertu izan zituen, 2018an 4 delituk 3 ikertu izan zituzten eta batek 2, eta 2019an delitu batek 4 ikertu izan zituen, 2 delituk 3 ikertu izan zituzten eta 3 delituk 2 ikertu izan zituzten.


²² Kasu honetan, gainerako herrialdeak urtearen arabera ez aztertzea erabaki da, aztertutako lau urteetan herrialde horretako nazionalitatea zuten ikertutako pertsonak baino ez baitira erregistratu. Beste hitzetan, gainerako nazionalitateekin ikertutako pertsonak oso gutxitan erregistratzen ziren urte batean baino gehiagotan, Marokon eta Nikaraguan izan ezik.

pertsonak, 26, atzerritarak dira (%29,21), eta horietatik gehienak Afrikakoak dira (%43,31), batez ere Marokokoak (%81,82) eta Latinoamerikakoak (%46,15).

IKERTUAK JATORRIKO HERRIALDERAREN ARABERA (2016-2019; N = 90)




JATORRIZ ESPAINIARRAK DIREN IKERTUAK (N = 63)




Jarraian, udalerrri mailan burututako ikerketen banaketa erakusten da. Honen arabera, lurralde historikoaren hiriburua bereziki nabarmentzen da, Donostia-San Sebastián $n=25$, bai eta Gipuzkoako hiru udalerrri nagusienetarikoa, hau da, Errenteria $n=5$, Zarautz $n=4$ eta Eibar $n=3$. Beasain $n=3$ ere nabarmentzen da, nahiz eta biztanle gutxiago izan.

IKERTUAK JATORRIKO JATORRIZKO UDALERRIAREN ARABERA GIPUZKOAN (2016-2019; N = 53)




Sexuaren araberako banaketari dagokionez, hurrengo grafikoak erakusten du 2016 eta 2019 artean 27 emakume (%30) eta 63 gizon (%70) ikertu zirela.

IKERTUAK SEXUAREN ARABERA (2016-2019; N = 90)




Batez besteko adina 35 urte dira, eta adin-tartea 13 eta 84 urte bitartekoa. Zehazki, ikertutako pertsona gehienak honako tarte hauetan daude: 18-29 urte (%23,33), 30-39 urte (%27,78), 40-49 urte (%23,33), zeinak kasuen %73,34a osatzen duten. Gainerako tarteei dagokienez, adingabeak %13,33a dira, eta 50 urtetik gorakoak, berriz, gainerako %13,33a.

IKERTUAK ADIN-TARTEAREN ARABERA (2016-2019; N = 90)




Hala ere, datu horiek sexuaren arabera banakatzen badira, ikus daiteke gizonak direla nagusi 2 adin-tarte txikienetan eta lau adin-tarte altuenetan. Erdiko bi adin-tarteetan, aldiz, ikertutako emakumeen eta gizonen kopurua oso antzekoa da.

IKERTUAK SEXU ETA ADIN-TARTEAREN ARABERA (2016-2019; N = 90)



Hurrengo grafikoak erakusten du ikerketa gehienak arrazakeriaren esparruan burutu direla ($n=58$, %64,44), honi, distantzia handira, biktimaren sexu-orientazio eta identitateagatik egindako gorroto delituek jarraitzen diotelarik ($n=10$, %11,11). Nabarmentzeko modukoa da biktimaren ideologia eta orientazio politikoarekin lotutako gorroto delituengatik inor ikertu ez izana. Datu horiek ikertutako pertsonaren sexuaren arabera banakatzen badira, ikusten da bai emakumeen kasuan, bai gizonen kasuan, ikerketa gehienak arraza-xenofobiaren esparruan burutu zirela, baina oso zifra desberdinekin, eta ez dagoela alde handirik gainerako kolektiboen aurkako delituei dagokienez.


IKERTUAK SEXU ETA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019; N = 100)



Azkenik, ikertutako pertsonen delitu-tipologiaren araberako banaketari dagokionez, ikerketa gehienak, espero zen bezala, lesioekin lotuta egon dira (%33,33), eta mehatxuak (%31,11), tratu apalesgarria (%16,67) eta gorroto-diskurtsoa (%12,22) jarraitzen diotelarik.

Bestalde, grafikoan ikus daitekeenez, gizon eta emakume gehienak lesio delituengatik ikertuak izan dira, tipologiarik ohikoena bi sexuetan bat egiten duelarik. Honetaz gain, derrigortzeak, kalteak eta irainak izan ezik, gizonak dira nagusi ikertutako delitu-tipologia guztietan.

IKERTUAK SEXU ETA DELITU- TIPOLOGIAREN ARABERA (2016-2019; N = 90)




1.6. ATXILOKETEN BANAKETA²³

2016 eta 2019 artean, Ertzaintzak pertsona bakarra atxilotu zuen Gipuzkoan, zehazki 2017an. Bere ezaugarri demografikoei dagokienez, 40 urteko gizon bat zen, zeinaren jatorrizko herrialdea Polonia zen. Atxiloketa, gainera, arraza-xenofobiaren esparruan izan zen, eta mehatxu delitu batean oinarrituta burutu zen.

²³ Gogoratu behar da, aurreko atalean aipatu bezala, atal honetan Gipuzkoan burututako gorroto delituen biktimak bakarrik barneratu direla, jatorrizko probintzia edozein dela ere. Gipuzkoan burututako gorroto-delituengatik atxilotuak izan diren pertsonen buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus 2016, 2017, 2018 eta 2019ko Euskadiko Gorroto Gertakarien Txostenak, honako esteka honetan kontsulta daitezkeenak: <http://katedraddhh.eus/es/informes/informes.php>

1.7. BIKTIMIZAZIOAREN BANAKETA²⁴

2016tik 2019ra bitartean, Ertzaintzak 119 gorroto-delituen biktimak identifikatu zituen Gipuzkoan²⁵: 23 2016an, 32 2017an, 35 2018an eta 29 2019an.




Biktimen %45,38 espainiarrak ziren (119tik 54), eta horietatik %79,63 Euskadikoak ziren (43 kasu, 40 Gipuzkoakoak eta 3 Bizkaikoak). Atzerritar jatorriko biktimak, berriz, erdia baino gehiago dira (%54,62 inguru, 65 kasu). Azken horiei dagokienez, Latinoamerikatik eta Afrikatik etorritako biktimak dira ugarienak (biktimen %35,38 eta %41,53, hurrenez hurren). Afrikari dagokionez, azpimarratzeko modukoa da marokoar jatorriko biktimen presentzia handia da, gorroto-delituen biktimen ia %16 baitira.

²⁴ Kasu honetan, ikertuen eta atxilotuen kasuan gertatzen zen bezala, biktimizazioen kopurua ez dator bat gorroto delituen benetako kopuruarekin, hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, 5 kasutan ezin izan zen biktima zehatza identifikatu (2 2016an, 2 2017an eta 1 2018an). Bestetik, gertakari batzuek biktima zuzen bat baino gehiago izan zuten. Adibidez, 2016an, 5 delituk 2 biktima izan zituzten, eta batek 6 biktima; 2017an, 5 delituk 2 biktima izan zituzten; 2018an, 3 delituk 2 biktima izan zituzten; eta 2019an, 4 delituk 2 biktima izan zituzten, eta batek 3.


²⁵ Atal honetan, Ertzaintzak Gipuzkoan erregistratutako gorroto delituengatik biktimizatutako pertsonak aztertzen dira, jatorria edozein dela ere. Hala, ikerketa honen ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko gorroto delitu baten biktima izan diren eta lurralde historiko horretan jatorria duten pertsonak, lurralde horretan gorroto delitu baten biktima izan ez badira ere.

BIKTIMAK JATORRIZKO HERRIALDEAREN ARABERA (2016-2019; N = 119)




Datuak udalerrri-mailan banakatzen badira, lurralde historikoaren hiriburua, Donostia-San Sebastián ($n=18$), eta Gipuzkoako udalerrri garrantzitsuenetako bi, Irun ($n=4$) eta Eibar ($n=3$) nabarmentzen dira.

BIKTIMAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA (2016-2019; N = 119)




Segidan, biktimen sexuari erreparatuz gero, gehienak gizonak dira (%67,2). Emakumeak, aldiz, biktimen herena baino zertxobait gutxiago dira (%32,7).

VÍCTIMAS POR SEXO (2016-2019; N = 119)




Batez besteko adina 35,9 urte dira, eta adin-tartea 11 eta 71 urte bitartekoa da. Zehazki, biktima gehienak adin-tarte hauetan biltzen dira: 18-29 urte (% 30,25), 30-39 urte (% 17,65), 40-49 urte (% 14,29) eta 50-59 urte (% 15,13). Gainerako adin-tarteei dagokienez, adingabeak %11,76a dira, eta 60 urtetik gorakoak, berriz, gainerako %10,92a.

BIKTIMAK ADIN-TARTEAREN ARABERA (2016-2019; N = 119)




Datu horiek sexuaren arabera banakatzen badira, ikus daiteke, ikertutakoen kasuan gertatzen zen bezala, gizonak direla nagusi adin-tarterik baxuenetan. Hala ere, ikertutako pertsonen kasuan ez bezala, biktimen adinak aurrera egin ahala, alde gero eta txikiagoa dago gizonen eta emakumeen biktimizazioaren artean.

BIKTIMA SEXU ETA ADIN-TARTEAREN ARABERA (2016-2019; N = 119)



Hurrengo grafikoak erakusten duen bezala, biktimizazio gehienak arrazakeriaren esparruan gertatu dira ($n=80$, %67,23)²⁶, eta ondoren, distantzia handira, biktimaren sexu-orientazioaren eta -identitatean oinarritutako biktimizazioak ($n=16$, %13,45) eta erlijio-sinesmen eta -praktiketan oinarritutako biktimizazioak ($n=10$, %8,4) doaz. Datu horiek biktimaren sexuaren arabera banakatzen badira, ikusten da bai emakumeen kasuan bai gizonen kasuan biktimizazio gehienak arrazismo-xenofobiaren esparruan egin zirela. Era berean, sexu-kolektiboaren kasuan izan ezik, babestutako kolektibo guztietan biktima gehienak gizonak dira, alde handiarekin.

BIKTIMAK SEXU ETA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019; N = 119)




Azkenik, biktimak delitu-tipologiaren arabera nola banatzen diren aztertu da. Hurrengo grafikoak erakusten duenez, mehatxuak eta lesioak jasan dituzten biktimak ia biktimen erdiak izan dira (%46,22). Gainera, kasu honetan, babestutako kolektiboaren kasuan gertatzen zen bezala, badirudi delitu-tipologia batzuk gizonak pairatzeko joera handiagoa dutela, hala nola lesioak, gorroto-diskurtsoa edo irainak; beste delitu-tipologia batzuetan, berriz, gizonak eta emakumeak antzeko zifrak aurkezten dituztelarik, hala nola

²⁶ Zentzu horretan, nabarmentzekoa da atzeriko biktimen %86,15a beren arraza/etniaren arabera biktimizatuak izan direla, bai eta kopuru hori %42,65era jaisten dela Espainiako nazionalitatea duten pertsonen kasuan.

mehatxuak, hertsapenak, kalteak edo tratu apalesgarria, eta ez dago delitu-tipologia pairagarriagorik.


BIKTIMAK SEXU ETA DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2016-2019; N = 119)



1.8. ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOEN BANAKETA


Arestian azaldu den bezala, 2016 eta 2019 artean 6 arau-hauste administratibo erregistratu ziren Gipuzkoan: 1 2016an, 2 2017an eta 3 2019an. Horietatik 5 kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako 19/2007 Legearen esparrura, uztailaren 11koa, mugatzen dira. Gainerako arau-haustea, berriz, onarpen-eskubidearen esparruan barneratzen da.

ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK TIPOAREN ARABERA (2016-2019; N = 6)




Jarraian ikus daitekeenez, arau-hauste horien erdiak arraza-xenofobiaren esparruan gertatu dira (%50), guztiak 2019an gertatu direlarik. Gainerako hiru arau-hauste administratiboak ideologia eta orientazio politikoaren esparrukoak dira.

ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2019; N = 6)




Arau-hauste administratiboen banaketa espazialari dagokionez, gehienak lurralde historikoko hiriburuan daude, Donostian ($n=5$, %83). Gainontzeko arau-haustea Eibarren egin zen ($n=1$; % 17).

ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK UDALERRIAREN ARABERA (2016-2019; N = 6)




Arau-haustea egin den lekuari erreparatuz gero, arau-haustek batez ere kirol-esparruetan eta horien inguruetan kokatzen direla ikus daiteke ($n=5$; %83). Era berean, diskoteka batean sartzeko eskubidea ukatzeko kasu bat erregistratu zen ($n=1$; % 17).

ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK LEKUAREN ARABERA (2016-2019; N = 6)



Azkenik, denbora-banaketari dagokionez, arau-haustek antzera banatzen dira hurrengo hilabeteetan: otsaila ($n=2$; %33), abuztua ($n=1$; %17), eta azaroa ($n=2$; %33), zehaztu gabe ($n=1$; %17).

ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK HILABETEAREN ARABERA (2016-2019; N = 6)



1.9. ONDORIOAK

1.9.1. Gorroto gertakarien guztizko kopurua

2016 eta 2019 artean, 106 gorroto-gertakari erregistratu dira Gipuzkoan; horietatik 100 delituak dira (% 94,34) eta 6 administrazioko arau-haustek (% 5,66).

Kontuan hartzen badugu 2016an 15 delitu-gertakari erregistratu zirela, 2017an 29 erregistratu zirela, 2018an 33 identifikatu zirela, eta 2019an 23 erregistratu zirela, ikus daiteke gertakarien kopurua nabarmen egin duela behera.

Ondorio horietarako, 2016ko Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko lehen txostenetik²⁷ ohartarazi den bezala, arau-hauste administratiboak bereizita geratzen dira beraien tratamendu, aurkezpen eta balorazioari dagokienez. Izan ere, arau-hausteen kopurua (zifra honek gertakari nagusiari loturiko gertakari gehiago barnebildu ditzake) eta benetako dinamika (pribatuak diren jarduera sektoreekin lotutakoa, adibidez, modu paradigmaticoan, kirol-ikuskizunak) kontuan hartuta, potentzialki delituzkoak diren gertakariekin parekagarria ez den tratamendua merezi dutelako.

1.9.2. Gertakarien jomugan dauden kolektiboen mapa

Gertakari arrazista edo xenofoboak 2016 eta 2019 artean erregistratutako delituen %61 dira (61 kasu). Bigarrenik, sexu-orientazioaren eta -identitatearen aurkako delituak ditugu, delituen % 15 direnak (15 kasu). Horien atzetik sinesmen eta praktika erlijiosoen aurkako delituak ($n=9$; %9) eta ideologia eta orientazio politikoaren aurkako delituak ($n=8$; %8) datoz. Azken kolektibo horri dagokionez, esan behar da, estatu mailan gertatu ez den bezala, Gipuzkoan ez dela ikusten ideologian eta orientazio politikoan oinarritutako jokabideen gorakadarik, alderantziz baizik; izan ere, Gipuzkoan erregistratutako era horretako jokabideak ia ez dira existitzen, 2017. urtean izan ezik.

²⁷ GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINZA, "Euskadiko Gorroto Gertakarien Txostena 2016", Eusko Jaurlaritzako Gobernua, 207. orr., *passim*. Kotsultarako eskuragarri http://katedraddhh.eus/documentos/pdf/informes/Informe_de_Incidentes_de_Odio_de_Euskadi_2017_-_EUSKARA_-_DEFINITIVO.compressed.pdf

Bestalde, dibertsitate funtzionalean ($n=3$; %3), sexuan ($n=2$; %2) eta aporofobian ($n=1$; 1) oinarritutako gorroto delituek ozta-ozta osatzen dute erregistratutako delituen %6. Sexu-kolektiboari dagokionez, gogoratu behar da 2019ra arte ez zela kategoria hori modu autonomoan existitzen, sexu-orientazio eta identitatetik aparte, eta, horregatik, mota horretako gorroto-delituen kopuru txikia erreserbekin hartu behar da kontuan.

Kolektibo etnikoak, era zabalean ulertuta (arrazismoa, xenofobia, ideologia, orientazio-politikoak, sinesmen eta praktika erlijiosoak), %78 ordezkatzeko du (%76,42 arau-hauste administratiboak kontuan hartuz gero). Aporofobia, dibertsitate funtzionala eta sexua batuz gero, ez dute %6 baino gehiago adierazten.

1.9.3. Delitu-tipologiak

i. Talde nagusiak. Txosten honetan mehatxuak (24 kasu: %24), lesioak (23 kasu: %23) eta gorroto-diskurtsoa (14 kasu: %14) hiru talde kopurutsuenak bezala agertu dira hurrengo delitu-taldeengandik nahiko urrun, tratu apalesgarria, kalteak eta hertsapenak alde batera utzita. Hirurek batera delitu-gertakarien %61 barne hartzen dute, hots, gorroto-maparen erdia baino gehiago.

2019ko Gorroto-gertakariei buruzko Txostenean²⁸ jada aipatu zen tratu apalesgarrien kasuen multzoa xehetasunez aztertuz gero, jokabide mehatxagarri eta iraingarrien testuinguruan ematen diren gorroto-gertakariak tokian bertako tipifikazioari buruzko zalantzak islatzen egon daitekeela ondorioztatu daiteke.

ii. Indarkeriazko gertakariak. Lesioak, talde osoaren laudenera hurbiltzen direnak (23 kasu: %23), erantzukizun kriminala aldatzen duen Zigor Kodearen 22.4 artikuluko inguruabarrarengatik astunduak izango liratekeen jokaeren erreferentziazko muina izango lirateke. Aurten, indarkeriazko gertakarien erregistroak bildutako kotarik txikienetara itzuli da, aztertutako lehen urtearen antzeko ehunekoetan (2016).

²⁸ GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINZA, "Euskadiko Gorroto Gertakarien Txostena 2019", Eusko Jaurlaritzako Gobernu Vasco, 2020, 40-41. orr, Kontsultarako eskuragarri http://katedraddhh.eus/documentos/pdf/informes/EUS_VERSION_FINAL.pdf.

Era zabalean ulertuta, “ekintzen bidezko” delituen burutze dinamikaren antzekoak diren beste delitu batzuekin batera, (jarkitze eta atentatu delituak: $n=1$; kalteak $n=9$; eta ondare historikoaren kontrako delitua $n=1$) delitu itxura duten gertakarien %34 ($n=34$) adierazten du.

iii. “Hitzen bidezko” gorroto delituak («*hate speech*» zentzu zabalean). Zentzu hertsian hartutako gorroto delituen kategoriarekin konparatuz (ekintzen bidezkoak), gorrotoaren propaganda gertakariak gehiengoa izaten jarraitzen dute. Mehatxuak ($n=24$), gorroto-diskurtsoa zentzu hertsian ($n=14$), irainak ($n=5$) eta kalumniak ($n=1$) gehituz gero, %44ra iristen dira ($n=44$), eta %63ra ($n=63$) igoz kategoria orokor baino gertukoak gehitzen badizkiogu, adibidez, derrigortzeak ($n=9$) eta tratu apalesgarria ($n=10$).

Delituen mapa horrela geratzen da, adierazpen jokaeren “gain-irudikapen” zertxobait nabarmenago batekin, 63ren kontra, lesio portaera edo haien indarkeria periferikoa baino potentzialki larriagoa den indarkeriekin konparatuz.

1.9.4. Gorroto delituen denbora- eta espazio-banaketa, ikertuak, atxilotuak eta biktimak

Udalerrri mailako gorroto delituen banaketari dagokionez, lau udalerririk Gipuzkoan burututako gorroto delituen %71 biltzen dute: Donostia-San Sebastián (%36), Irun (%17), Eibar (%11) eta Errenteria (%7). Agertokiei dagokienez, gorroto delitu gehienak hiri bide publikoan (%38) burutzen dira, etxebizitzak jarraitzen diolarik (%26).

Gorroto delitu gehien burutzen diren egunak igandea (%19), osteguna (%17) eta asteazkena (%16) dira. Orduaren arabera banaketaren kasuan gorroto delitu gehienak arratsalde eta gauean gertatzen dira (%70).

Ikertuei dagokienez, gehienak espainiarrak dira (%70), zeinetatik %85,71 Euskaditik datozen, zehazki, Gipuzkoatik. Atzerritarak diren ikertuetatik, Afrikatik (%43,31) eta Latinoamerikatik (%46,15) datozenak nabarmentzen dira. Udalerrri mailan, ikertu gehienak lurralde historikoko hiriburutik datoz, Donostiatik ($n=25$).

Bestalde, 2016 eta 2019 artean Gipuzkoan atxilotu bakarra egon zen. Bere ezaugarri demografikoei dagokienez, 40 urteko gizon bat zen eta Polonia zen bere jatorrizko herrialdea.

Biktimen %45,38 espainiarrak dira, %79,63 Euskadikoak. Atzerriko biktimekin alderatuta (%64,62), Afrikakoak (%41,53) eta Latinoamerikakoak (%35,38) nabarmentzen dira. Euskaditik datozen biktima gehienak Gipuzkoakoak dira, batez ere Donostiakoak (%18), Irungoak (%4) eta Eibarkoak (%3).

1.9.5. Gipuzkoako gorroto mapa Euskadi mailako testuinguruan

i. Datu orokorrak eta helburu diren kolektiboak. 2016an eta 2019an, 106 gorroto-gertakari erregistratu dira Gipuzkoan; zeinetatik 100 delituak ziren (%94,34) eta 6 arau-hauste administratiboak (%5,66). Euskadi osoko datuei erreferentzia eginez, urte horiei buruzko 2016, 2017, 2018 eta 2019ko Euskadiko Gorroto-Gertakarien Txostenak abiapuntutzat hartuta, Gipuzkoan gertatu ziren Euskadi osoan poliziarengana iritsi ziren gorroto istiluen% 20,5.

Ondorioz, Gipuzkoan erregistratutako datuek ez dute agerian uzten fenomenoaren hautemateari dagokionez gorakada nabarmenik egon denik, alderantziz baizik; hori ere azken urteotan (2016-2019) Euskadiri buruz Ertzaintzak bildutako datuetan ikus daitekeelarik.

Babestutako taldeei dagokienez, bi kasuetan arrazakeria eta xenofobia argi eta garbi nagusitzen dira, gertakarien %50 eta %60 artean biltzen dituztelarik. Bai autonomia-erkidegoan, bai lurralde historikoan, 2016-2019 artean gehien biktimizatutako hurrengo kolektiboak sexu-orientazioa edo -identitatea eta ideologia eta orientazio politikoa dira, hurrenez hurren; hala ere, Euskadin, Barne Ministerioak aurkeztutako txostenetan gertatzen hasi den bezala, joera-aldaketa bat ikusten hasi da. Honen eraginez, azken urtean, ideologian eta orientazio politikoan oinarritutako gertakariak sexu-orientazio eta identitatean oinarritutako gertakariak gainditu dituzte.

Konklusio gisa, esan daiteke bi kasuetan gehien biktimizatutako kolektiboak arrazakeria/xenofobia, ideologia eta orientazio eta identitate sexuala direla; aldiz, biktimizazio eskasa erregistratu da aporofobia eta sexuari dagokienez.

ii. Delitu-tipologiak. Delitu-tipologiei dagokienez, bi txostenetan lesioak (%24,6 Euskadin eta %23 Gipuzkoan) eta mehatxuak (%20,5 Euskadin eta %24 Gipuzkoan) nabarmentzen dira. Honetaz gain, hurrengo delitu-tipologia kopurutsuenak neurri txikiagoan bada ere, honako hauek dira bi kasuetan: gorroto-diskurtsoa (% 14,5 Euskadin eta % 14 Gipuzkoan), tratu apalesgarria (%8 Euskadin eta % 10 Gipuzkoan), hertsapenak (%7,8 Euskadin eta %9 Gipuzkoan) eta kalteak (% 7,4 Euskadin eta % 9 Gipuzkoan).

iii. Beste batzuk: biktimak, erasotzaileak, banaketa espazio-tenporala eta agertokia.

Biktimen profil demografikoari erreparatuz, bi txostenetan gehienak gizonak izan ziren (%62,5 Euskadin eta %67,2 Gipuzkoan), 18 eta 49 urte artekoak (%75,2 Euskadin eta %62,2 Gipuzkoan). Jatorrizko lekuari erreferentzia eginez, Euskadin biktimen %52,8 espainiarrak ziren; Gipuzkoan zifra hori %45era jaisten den bitartean, zeinetatik ia %80 Euskaditik zetozelarik. Bestalde, atzerritarrak diren biktimei dagokienez, bi kasuetan biktimizazio gehien jasan duten kolektiboak Afrikatik datozen pertsonak (%22,6 Euskadin eta %41,5 Gipuzkoan) eta Amerikatik datozen pertsonak (%16,4 Euskadin eta %35,4 Gipuzkoan) izan ziren.

Erasotzaileen profil demografikoari aztertuz gero, bai Euskadin bai Gipuzkoan, gorroto gertakarien egileak gizonezkoak (%75,4 Euskadin eta %70 Gipuzkoan), gazte-helduak (%60 Euskadin eta %63,7 Gipuzkoan 40 urtetik beherakoak ziren) eta espainiar nazionalitatekoak (%69,2 Euskadin eta % 69,2 Gipuzkoan) izan ziren nagusiki.

Gertakari hauen banaketa espazio-tenporalari erreparatuz, irailean eta azaroan burutu ziren mota honetako gertakari gehienak Euskadi, 52 eta 50 kasuekin, hurrenez hurren Gipuzkoan, ordea, martxoa (16) eta abuztua (12) izan ziren gertakari gehien erregistratu zituzten hilabeteak.

Azkenik, patroiz espazialaren kasuan, bai Euskadin, bai Gipuzkoan, gertakari gehienak hiri bide publikoan kokatzen direla dirudi (%37,5 Euskadin eta %38 Gipuzkoan). Ereku pribatuan, aldiz, etxebizitzak nabarmentzen dira, neurri txikiagoan bada ere (%18 Euskadin eta %26 Gipuzkoan).

BIBLIOGRAFIA

- ACHUTEGUI OTALAURRUCHI, P., “Victimización de los delitos de odio. Aproximación a sus consecuencias y a las respuestas institucional y social”, *Revista de Victimología/Journal of Victimology*, Núm. 5, 2017, págs. 33 y 62.
- CÁTEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, “Informe de incidentes de odio de Euskadi 2016”, *Eusko Jaurlaritzza-Gobierno Vasco*, 2018.
- CÁTEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, “Informe de incidentes de odio de Euskadi 2017”, *Eusko Jaurlaritzza-Gobierno Vasco*, 2018.
- CÁTEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, “Informe de incidentes de odio de Euskadi 2018”, *Eusko Jaurlaritzza-Gobierno Vasco*, 2019.
- CÁTEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, “Informe de incidentes de odio de Euskadi 2019”, *Eusko Jaurlaritzza-Gobierno Vasco*, 2020.
- GARCÍA ESPAÑA, E./DÍEZ RIPOLLÉS, J.M./PÉREZ JIMÉNEZ, F./BENITEZ JIMÉNEZ, M.J./CEREZO DOMÍNGUEZ, A.I./ (2010), “Evolución de la delincuencia en España: Análisis longitudinal con encuestas de victimización”, *Revista Española de Investigación Criminológica*, Art. 2, Núm.8, págs. 1-27.
- IGANSKI, P., *Hate crime and the city*, Policy Press, Bristol, 2008
- LANDA GOROSTIZA, J.M., “El mapa de odio en el País Vasco. A la vez una reflexión sobre delitos de odio y violencia política en Euskadi, Catalunya e Irlanda del Norte”, *InDret: Revista para el Análisis del Derecho*, Núm. 4, 2018, págs. 1-29.
- MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., *Policing hate crime. understanding communities and prejudice*, Routledge, Oxon, 2017.
- MCNEELEY, S./OVERSTREET, S.M., “Lifestyle-routine activities, neighborhood context, and ethnic hate crime victimization”, *Violence and Victims*, Vol. 33, 2018, págs. 932-948.
- VOZMEDIANO SANZ, L./SAN JUAN GUILLÉN, C., *Criminología ambiental: ecología del delito y de la seguridad*. Editorial UOC, Barcelona, 2010.

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia. Gorroto gertakarien bilakaera (2016 – 2019)	5
2. Irudia. Gorroto delitu eta arau-hauste administratiboen bilakaera (2016 – 2019)	5
3. Irudia. Gorroto delituak babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 100).....	7
4. Irudia. Gorroto delituak babestutako kolektiboaren eta urtearen arabera (N = 100)	8
5. Irudia. Arrazismo – xenofobia delituak kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 61).....	9
6. Irudia. Arrazismo – xenofobia delituen bilakaera (2016-2019; N=61)	9
7. Irudia. Sexu-orientazio eta identitate delituak kolektiboaren arabera (2016 – 2019, N=15).....	10
8. Irudia. Sexu-orientazio eta identitate delituak kolektibo eta urtearen arabera (2016 – 2019; N=15)	10
9. Irudia. Sinesmen eta praktika erlijiosoen aurkako delituak kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N=8)	11
10. Irudia. Sinesmen eta praktika erlijiosoen aurkako delituak urtearen arabera (2016 – 2019; N=8).....	11
11. Irudia. Delitu-tipologiak (2016 – 2019; N=100)	12
12. Irudia. Delitu-tipologiaren bilakaera (2016 – 2019).....	13
13. Irudia. Delitu-tipologia babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019)	14
14. Irudia. Gorroto delituak udalerrri mailan (2016 – 2019; N = 100)	15
15. Irudia. Gorroto delituak udalerrri eta urtearen arabera (N = 100).....	16
16. Irudia. Gorroto delituak udalerrri eta babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 100).....	17
17. Irudia. Gorroto delituak komisio-lekuaren arabera (2016 – 2019; N = 100).....	18
18. Irudia. Gorroto delituak komisio-lekuaren eta urtearen arabera (2016 – 2019; N = 100)	19
19. Irudia. Delituak hiri bide publikoan eta etxebizitzan babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 64)	20
20. Irudia. Delituak hiri bide publikoan eta etxebizitzan delitu-tipologiaren arabera (2016 – 2019; N = 64)	20
21. Irudia. Gorroto delituak hilabetearen arabera (2016 – 2019; N = 100)	21
22. Irudia. Gorroto delituak hilabete eta urtearen arabera (2016 – 2019; N = 100).....	22
23. Irudia. Gorroto delituak hilabete eta babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 100).....	23
24. Irudia. Gorroto delituak hilabete eta delitu-tipologiaren arabera (2016 – 2019; N = 89)	24

25. Irudia. Gorroto delituak hilabete eta udalerraren arabera (2016 – 2019; N = 71)	25
26. Irudia. Gorroto delituak asteko egunaren arabera (2016 – 2019; N = 100)	26
27. Irudia. Gorroto delituak asteko eguna eta urtearen arabera (N = 100)	26
28. Irudia. Gorroto delituak asteko eguna eta babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 100)	27
29. Irudia. Gorroto delituak asteko eguna eta delitu-tipologiaren arabera (2016 – 2019; N = 89)	28
30. Irudia. Gorroto delituak orduaren arabera (2016 – 2019; N = 100)	29
31. Irudia. Gorroto delituak ordu eta urtearen arabera (N = 100)	29
32. Irudia. Gorroto delituak ordu eta asteko egunaren arabera (2016 – 2019; N = 100)	30
33. Irudia. Gorroto delituak ordu eta babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 100)	31
34. Irudia. Gorroto delituak ordu eta delitu-tipologiaren arabera (2016 – 2019; N = 89)	32
35. Irudia. Ikertuak urtearen arabera (N = 90)	33
36. Irudia. Ikertuak jatorriko herrialdearen arabera (2016 – 2019; N = 90)	34
37. Irudia. Jatorriz espainiarrak diren ikertuak (2016 – 2019; N = 63)	34
38. Irudia. Ikertuak jatorriko jatorrizko udalerraren arabera Gipuzkoan (2016 – 2019; N = 53)	35
39. Irudia. Ikertuak sexuaren arabera (2016 – 2019; N = 90)	36
40. Irudia. Ikertuak adin-tartearen arabera (2016 – 2019; N = 90)	36
41. Irudia. Ikertuak sexu eta adin-tartearen arabera (2016 – 2019; N = 90)	37
42. Irudia. Ikertuak sexu eta babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 90)	38
43. Irudia. Ikertuak sexu eta delitu-tipologiaren arabera (2016 – 2019; N = 90)	39
44. Irudia. Biktimak urtearen arabera (N = 119)	40
45. Irudia. Biktimak jatorrizko herrialdearen arabera (2016 – 2019; N = 119)	41
46. Irudia. Biktimak jatorriko udalerraren arabera (2016 – 2019; N = 119)	42
47. Irudia. Biktimak sexuaren arabera (2016 – 2019; N = 119)	42
48. Irudia. Biktimak adin-tartearen arabera (2016 – 2019; N = 119)	43
49. Irudia. Biktimak sexu eta adin-tartearen arabera (2016 – 2019; N = 119)	43
50. Irudia. Biktimak sexu eta babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 119)	44
51. Irudia. Biktimak sexu eta delitu-tipologiaren arabera (2016 – 2019; N = 119)	45

52. Irudia. Arau-hauste administratiboak tipoaren arabera (2016 – 2019; N = 6).....	46
53. Irudia. Arau-hauste administratiboak babestutako kolektiboaren arabera (2016 – 2019; N = 6)	46
54. Irudia Arau-hauste administratiboak udalerraren arabera (2016 – 2019; N = 6).....	47
55. Irudia. Arau-hauste administratiboak lekuaren arabera (2016 – 2019; N = 6)	47
56. Irudia. Arau-hauste administratiboak hilabetearen arabera (2016 – 2019; N = 6).....	48